



Getariako Udala

2024IAKU0008

2024ko urriaren 29a EGINDAKO UDALBATZARRAREN AGIRIA

ALKATEA

HARITZ ALBERDI ARRILLAGA

BERTARATUAK

ANE LOIDI LEUNDA
EKAITZ ESTEBAN PERTUSA
AINITZE GEREKA GOIENETXE
ENEKO MIRALLES OTAMENDI
JAIONE LARRAÑAGA GARRASTAZU
IOSU MUJIKA GARMENDIA
KARMELE MARTIARENA MUGERTZA
AITOR URRESTI MARTINEZ
M.KARMELE AZKUE IRIBAR

EZ BERTARATUAK

HOSTAIZKA ETXEBERRIA ARRUABARRENA

IDAZKARIA

MARCOS AIZPURU ISASTI

Getarian, Udaletxeko bilera aretoan, aurrez egindako deialdira, 2024ko urriaren 29a, arratsaldeko 19:00etan, Getariako Udalaren batzar osoa biltzen da ez ohikoa saioan, goian aipatzen diren zinegotziak, Haritz Alberdi Arrillaga Alkatearen lehendakaritzapean.

Bertan aurkitzen da Udalaren idazkari kontu-hartzailea den Marcos Aizpuru Isasti eta zinpean ekitaldiaren berri jasotzen du.

ALDERDI ERABAKITZAILEA

GAI ZERREDA:

1.- ZARAUTZ JAUREGIAREN OBRA ARKITEKTONIKOAREN 15. LAN-ZIURTAGIRIA ONARTZEA ETA ORDAINTZEA, HALA BADAGOKIO.,

Audio-aktan entzun daitekeen eztabaidaren ondoren, EH Bildu Udal Taldearen 6 aldeko eta EAJ-PNV Udal Taldearen 4 aldeko bozekin, hain zuzen udalbatzak honakoa onartzen du:

LEHENA.- Zarautz jauregiaren obra arkitektonikoaren 15. Lan-ziurtagiria onartzea eta hori ordaintzea.



Getariako Udala

2.- “H.E. XVIII POTZUAGA-GAINA” EREMUARI DAGOKION GETARIAKO ARAU SUBSIDIARIOEN ALDETARAKO HASIERAKO ONESPENA, HALA BADAGOKIO.

2024ko irailaren 4an Santiago Peñalba Garmendiak gidatzen duen lantaldeak Getariako Arau Subsidiarioetako aldetetako (XVIII Potzuaga Gaina hirigintza-eremua) hasierako onarpeneko dokumentua aurkeztu zuen (2024ko iraileko dokumentua).

Udal teknikariak egindako txostena aintzat hartuta,

Audio-aktan entzun daitekeen eztabaidaren ondoren, EH Bildu Udal Taldearen 6 aldeko bozekin, kontrako bozik gabe eta EAJ-PNV Udal Taldearen 4 abstentzioarekin, hain zuzen udalbatzak honakoa onartzen du:

LEHENA.- Hasierako onespena ematea Getariako Arau Subsidiarioetako XVIII Potzuaga Gaina hirigintza-eremua dagokion Arau Subsidiarioak aldatzeko dokumentuari. Onartutako dokumentua 2024ko irailean idatzia da, Santiago Peñalba arkitektoak zuzendutako taldeak idatzia; 2024ko irailean idatziriko ingurumen-dokumentu estrategikoarekin batera doa, lantalde berdinak idatzia.

BIGARRENA.- 2006ko ekainaren 30eko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 85.3 artikuluan jasotako baldintzetan, hirigintzako onarpen, baimen eta lizentzia guztiak bertan behera uztea, aurreikusitako zehaztapen berriek indarrean dagoen hirigintza-araubidea aldatzea dakarten eremuetan.

HIRUGARRENA.- Behin-behineko onarpenaren aurretik, udal arkitektoaren 4.1 atalean jasotako zuzenketak jaso beharko dira.

LAUGARRENA.- Espedientea jendaurrean jartzea, interesdun orok bidezkoak iruditzen zaizkion alegazioak aurkeztu ahal izan ditzan. Jendaurreko epea 45 lan-egunekoa izango da, eta erakustaldiaren izapidea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, probintzian gehien zabaltzen den egunkarian, eta Udalaren web orrian jakinaraziko da.

3.- 2025. EKITALDIRAKO TAXI TARIFAK ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Ikusirik AGITAX, Gipuzkoako Taxisten Elkartek egindako eskera udalek tarifak onartzea premiazkoa dela eta jasotako proposamenaren baitan 2025 urterako tarifak aldatzea.

Audio-aktan entzun daitekeen eztabaidaren ondoren, EH Bildu Udal Taldearen 6 aldeko eta EAJ-PNV Udal Taldearen 4 aldeko bozekin, hain zuzen udalbatzak honakoa onartzen du:

LEHENGOA.- 2025.ekitaldirako ondorengo taxi zerbitzuaren tarifak onartzea:



Getariako Udala

| PROPUESTA TARIFA URBANA 2025 | | | | | |
|---------------------------------------|---------------------|----------------|---------------|---------------------|----------------|
| 2025ko HIRI BARUKO TARIFA PROPOSAMENA | | | | | |
| TARIFA 1* | | | TARIFA 2** | | |
| Tarifa mínima | Kilómetro recorrido | Hora de espera | Tarifa mínima | Kilómetro recorrido | Hora de espera |
| Gutxiena | Egindako Kilometroa | Itxaron Ordua | Gutxiena | Egindako Kilometroa | Itxaron Ordua |
| 6,5759 | 1,4033 | 26,8001 | 7,8278 | 2,2382 | 43,7458 |

Gutxieneko tarifak 1,5 kilometroko ibilbidea edo 5 minutuko itxaronaldia hartzen du

* Lanegunetan 07:00tik 22:00 arte.

** Tarifa hau egunero ezarriko da 22:00tik 7:00 arte. Bai igande eta araudi autonomika eta lokaleko erabakitako jaiegunetan 7:00tik 22:00 arte bai larunbatetan, eta abenduaren 24 eta abenduaren 31 egunetan .

BIGARRENA.- Gipuzkoako Taxi Elkarteari eta Urola kostako mankomunitateari erabakiaren berri ematea.

4.- LAN-POLTSAK SORTU ETA KUDEATZEKO IRIZPIDEAK UDAL ORDENANTZAREN BEHIN-BETIKO ONESPENA, HALA BADAGOKIO.

2024ko maiatzaren 28an egindako Ohikoa Udal Batzarraren hasierako onespena eman zitzaion "Lan-poltsak sortu eta kudeatzeko irizpideak" udal ordenantzari.

Hartutako erabakiaren berri jendaurrean jarri zen hogeita hamar eguneko epean, 2024ko ekainaren 6ko 109 zenbakidun Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako iragarkiaren bidez. 2024ko ekainaren 7tik uztailaren 18a bitarteko epean "Elkartu, Gipuzkoako Desgaitasun Fisikoa duten Pertsonen Federazio Koordinatzaileak" erreklamazio bat aurkeztu zuen, non eskatzen zuen paragrafo bat gehitzea lan-poltsak sortzeko eta kudeatzeko irizpideei buruzko ordenantzaren 16. artikuluan.

"Legeak desgaitasuna duten pertsonak kontratatzeke Herri Administrazioei ezartzen dien kuotara iritsi arte, edo negoziazioan ezarritako kuotara iritsi arte (azken hori handiagoa balitz), pertsona desgaituentzako txandari dagokion zerrendarik egongo balitz, 3 kontratu edo izendapenetik 1 pertsona horien aldekoa izango da. Zerrenda hauek era osagarrian erabiliko dira, lehentasun hurrenkeraren arabera erabili beharreko zerrendak osatzeko. Muga berarekin, pertsona desgaituentzako txandari dagokion zerrendarik egongo ez balitz, ahaleginak egingo dira kontratu edo izendapen kopuru bera egiteko pertsona horiei, desgaitasuna aitortuta eduko beharko dutenak, %33koa edo hortik gorakoa, dagokion administrazio organo eskumendunaren aldetik, eta lehentasun hurrenkeraren arabera erabili beharreko zerrendan egon beharko dutenak."



Getariako Udala


Audio-aktan entzun daitekeen eztabaidaren ondoren, EH Bildu Udal Taldearen 6 aldeko eta EAJ-PNV Udal Taldearen 4 aldeko bozekin, hain zuzen udalbatzak honakoa onartzen du:

LEHENA.- “Elkartu, Gipuzkoako Desgaitasun Fisikoa duten Pertsonen Federazio Koordinatzaileak” egindako erreklamazioa onartzea, eta proposatutako testua txertatzea “Lan-poltsak sortu eta kudeatzeko irizpideak” udal ordenantzan.

BIGARRENA.- Aipatu udal ordenantzaren behin-betiko testua onartzea <https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/39/AAAA4HK28.0Wzm>.

HIRUGARRENA.- Behin-betiko testua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, indarrean sartu ahal izateko.

Eta besterik gabe, Alkateak bilera amaitzea erabaki du, arratsaldeko 19:15 direnean.

| | |
|--|---|
| Sinatzailea: | ALKATEAK HARITZ ALBERDI ARRILLAGA |
| Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Honen sinesgarritasuna ziurtatzeko jo Interneteko orrialde honetara: https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/39/AAAA4J9B2.2CV3 |  |